

1. ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN HELBURUARI ETA EDUKIARI BURUZKO OHAR OROKORRAK

1.1 LURRALDEAREN ARLOKO PLANA PLANGINTZAREN TESTUINGURU OROKORRAREN BARRUAN

LALek jasotako tresnak, EAeko lurraldea antolatzeko asmoz, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak dira.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak lurraldeko eta hiriko gainerako antolamendu-tresnak formulatzeko erreferentzia-esparru orokorra dira eta otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko.

Legeak horiek Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen bitartez garatzea aurreikusten du. Aipatutako planak antolamendu zehatzagoa behar duten esparru jakin batzuetan formulatu ahal izango dira.

LAAek planteatutako lurralde-eskemaren barruan, garrantzi berezia dute eskualde-egitura izenekoak zehazteari buruzko erabakiek. Eskualde-egiturak lurraldea antolatu eta orekatzeko estrategiak aztertu eta aplikatzeko tarteko piezak dira.

Lurraldearen Antolamendurako Plangintza Sistema Instituzionala egituratzeko sortutako testuinguruan, LAAk bilakatzen eta eskualde-egiturak etorkizunean itxuratzeko erabaki gehienak LZPen esku uzten joan dira. Hala, lurraldearen antolamendu-sistema berriaren birtualtasuna, neurri handi batean, idazketa-fasean dauden Lurraldearen Zatiko Planen eraginkortasunaren mende egongo da.

Lurraldearen Arloko Planen bidez, lurraldean eragina duten arloko antolamendurako tresna desberdinak arautzen dira. Aipatutako tresnak Eusko Jaurlaritzako Sailek eta Lurralde

Lurraldearen antolamenduan eta etxebizitza-politikan dituen aginpide horien ondorioz eta azken hori lurralde-antolamenduko lanetan barne hartzeko asmoz idatzi da Plan hau.

- b) Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, ondokoa ezartzen dute 9. kapituluko ("Lurralde-ereduaren ondorioak lurzoruaren politikan") 3. puntuan ("BIZITEGI-LURZORUAREN POLITIKARAKO ORIENTABIDEAK"):

"Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idatziko da, etxebizitza-gaietan inbertsio publikoak bideratzeko asmoz".

- c) Eusko Legebiltzarrak, 1996-1999 Etxebizitza Planari (ETXEBIDE) dagokionez 1996ko ekainaren 26an onartutako erabakien artean, ondokoa ezartzen du hirugarrenean:

"Eusko Legebiltzarrak Bizitegi Lurzoru Publikorako dagokion Lurraldearen Zatiko Plana lehenbailehen landu eta bideratzeko eskatuko dio Jaurlearitzari".

Horrenbestez, gai honen inguruko eskumena duten sailek honako Lurraldearen Arloko Plana garatu behar dute, ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarraren edota Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen legezko agindu gisa, baizik eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren etxebizitza-gaietako arloko politikarako lurralde-erreferentzia izateko ere.

1.3. ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN OINARRIZKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

Planaren oinarrizko helburua etxebizitza sustatzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren politikaren jardun-irizpideei buruzko lurralde-jarraibideak planteatzea da, EAeko udalerrri guztietarako edota LAAetan zehaztutako eskualde-egituretarako.

Ildo horretatik, Etxebizitzen Sustapen Publikorako LAPa ez da nahastu behar ez etxebizitza-plan batekin ez eta bideratzeko plan edo plan zuzentzaile batekin ere (azken horrekiko tresna bat besterik ez da). Izan ere, biek aurrekontu-politikari, laguntzen gizarte-politikari, etab. buruzko arazo orokorrak jorratzen dituzte, honako Lurraldearen Arloko Planaren helburuak gainditzen dituztenak.

Ondorioz, Plan honek, planteatutako lantze-prozesuaren arabera, helburu hauek ditu: etxebizitzari eta bizitegi-lurzoruari (batez ere etxebizitza publikoa sustatzera zuzendutakoari) dagokienez gaur egungo egoera oro har azaltzea, beregan eragina duten hirigintza- eta lurralde-arazo nagusiak adieraztea, epe ertainean eta luzean aurreikus daitekeen bilakaera planteatzea, lurzoru-beharrak zenbatetzea, etxebizitza babesturako lurzoruaren sustapenean esku-hartze publikorako aukerak aztertzea eta, azkenik, esku hartzeko irizpide eta jarraibide estrategiko nagusiak proposatzea.

Eginkizun horiek LAAen 9. kapituluan daude jasota, 3.4 puntuan. Aipatutako kapituluan, Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak jaso beharreko alderdiak eta berori idazteko irizpideak adierazten ditu:

- “a). Eskualde-egitura desberdinetan babes ofizialeko etxebizitzen beharizana kuantifikatzea.
- b). Adierazitako etxebizitzak kokatzeko irizpideak eta udal-plangintzak kontuan izan beharreko parametroak ezartzea, helburu horretarako behar den lurzoruaren eskuragarritasuna bermatzeko xedez.

- c). Beharrezko inbertsioen programazioa eta proposatutako esku-hartzeen ikuspegia eta bideragarritasuna aditzera emango duen azterlan ekonomikoa.”

“Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana” idazteko irizpideak:

- A). Lehenespenez hiritarrek etxebizitza duina edukitzeko duten eskubide konstituzionala gauzatu ahal izatera zuzendutako jarduketak.
- b). Etxebizitzen sustapen publikorako jarduketak, euskal populazioaren beharizanen eta LAA hauen bitartez lortu nahi den lurralde-ereduaren arabera.
- c). Etxebizitzen sustapen publikorako jarduketak hautatzea bizitegi-lurzoruaren eskaintzaren itomena arintzeko eta merkatua egonkortzea ahalbidetzeko, betiere lurraldearen harrera-ahalmena kontuan izanik.
- d). Arreta berezia eskainiko zaio etxebizitzen sustapen publikorako lurzorua sortzeko jarduketa hauek eta ekonomi jardueren sustapen publikorako lurzorua sortzeko jarduketak koordinatzeari, honela sustapen publiko orokorraren bideragarritasuna lortzeko eta bizitegiaren eta enpleguaren artean oreka handiagoa lortzeko.”

Azkenik, lehen adierazi bezala, Artezpideak garatzeko, Lurraldearen Zatiko Plan desberdinak idazten ari dira. Aipatutako planek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan zehaztutako eskualde-egitura bakoitzean bizitegi-lurzoruarekin lotutako arazoak aztertuko dituzte.

Hori dela eta, aipatutako planak koordinatzeko, bi sailek bidezkozat jo dute Plan hau planteatzea, Plan honek proiektio demografikoak, etxebizitzaren behar orokorrari buruzko zenbatespenak eta EAE osoaren lurraldean eta eskualde-egituretan etxebizitza publikoa sustatzeko gordetako lurren dimentsionamendua biltzen ditu. Erreferentzia-esparru orokorra da, Lurraldearen Zatiko Planen zenbatespenak egiaztatzeko, bizitegi-lurzoriari eta, bereziki, etxebizitza publikoa sustatzeko lurzoriari dagokienez.

1.4 PLANAREN HELMUGA

Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren asmoa, berezkoak dituen helburuez gain, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek proposatutako eta Lurraldearen Zatiko Planek EAEko lurraldea zatitzen deneko eskualde-egitura bakoitzean garatutako lurralde-eredua lortzen laguntzea denez eta horiek epe luzeko (16 urte) lurralde-antolamendurako eredia barne hartzen dutenez, lau urtean behingo jarraipenarekin, egokia dirudi antzeko aldia ezartzeak Lurraldearen Arloko Planerako.

Helmuga horrek erreferentzia gisa balioko du proiektio demografikoak ezartzeko eta ondoriozko etxebizitza-beharrak finkatzeko eta, ondoren, hurrenez hurrengo etxebizitza bideratzeko planen ondoriozko jardunen eta programen agertokiak dimentsionatzeko eta lurraldean kokatzeko.